

Berrigara



Orkesta sinfonikoa

Orain Musika Eskolatik kanpo

Euskeria ikasi nai dabela?

*Esaiozu AEKn talde berrixa
osatuko dala.*

æk


T. 70513



VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai, 4 Tl. 76 12 21 Bergara
Iturrioz, 24 Tl. 79 78 10 Arrasate

*Zure ongizatea
babezteko gaudu*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



ederTu

Barrenkalea 23 Bergara
Tf. 76 29 65



Roperoaren beharra

Xabier Azkoitia / Apaiza

Aurreneko aldia da Berrigarako astekari honetan idazten dudana. Eskatu zidatenean neronen partehartzea galdetu egin nuen gai jakinik bazegoen idazterakoan edo gaiak jorrazteko unean, "Herriarekin lotuta dagoen zerbait" jaso nuen erantzun, eta bat berria denez, azkenean norbera dabilen esparrutik aukeratu egin dut gaia: roperoa.

Datorren hilean, hain zuzen, otsailen, luze itxirik egon den Bergarako parrokiaren arteko roperoa zabaldu egingo da berriro, Sierbetako gunean. Lanak bukaturik daude eta hasiera emateko erropak ekarrita ere bai, beraz, irekitzeko moduan aurkitzen gara jadanik. Alde batetik, lotsa apur bat eman beharko lioke gure gizarteari, eta, beraz, guri ere bai, Caritas bezalako elkarte batek, horrelako egoitza bat ireki beharra izatea, guztiok osaturik izanda beharko genukeen eskubide bat osatu dadin. Gure gizartea dualizatzen doa, bikoizten, eta egunetik egunera behar-tsuen erresumara gizon-emakume

gehiago heltzen ari da. Horrek behar-beharrezko kezka sortarazi beharko liguke. Azken batez, Roperoaren beharra, bikoizketa horren sintoma bat besterik ez baita.

Helburua argia da, norberak, pertsona bakoitzak, bere lanaren bidez jasotzen duenetik edo pentsiotik jasotzen duenetik bizitzeko eskubidea du. Baina gure gizartean, askorentzat, aditza "behar luke" bihurtzen da. Denok ordaintzen ditugun zergetatik aurre egin beharko lioke administrazioak ezinean daudenen egoerei, baina hemen

"Lotsa apur bat eman beharko lioke gure gizarteari eta, beraz, guri ere Caritas bezalako elkarte batek, horrelako egoitza bat ireki beharra izatea"

ere, errekursoak urriak omen direnez, aditza aldatu egin beharra dago eta "beharko lioke" jarri behar dugu askotan, zoritxarrez. Beraz, hainbeste "behar" topatzen baditugu errealitatean, era subsidiarioan norbaitzuk zerbait antolatu behar dute gizarte zibiletik leuntzeko apur bat, besterik ez baita, hainbat pertsonak eta familiak jasaten duten egoera larria.

Elizak, Caritasen bidez, roperoa ireki egiten du, eta dei egiten dio gure herriari ekintza apal honetan parte hartuz justiziazko den zerbait denon artean lortzen ahalegindu gaitezen. Helburuetan denok duintasunez bizi behar dugula sinestu eta aldarrikatzen badugu, duintasun hori errealitate bihurtzen da bizitzeko gutxienezko diren batzuk lortuz ere.

Hasieran, esaten nuen herriarekin lotuta dagoen zerbait jarri zidatela idazteko gaia, zeharo konbentziturik nago, guztion giza eskubideak betetzen laguntzea herriari zeharo itsatsita dagoen zerbait dela.

■ barruan



Silvana Huegun

Oilur atseden etxeko kidea

"Umeengan gero eta kolesterol eta diabetes kasu gehiago ematen hasi dira"

8. orrialdean.



Eli Mendaratz

Musika Eskolako zuzendaria

"Ikasleentzat beharrezkoa da eskolan orkestra sinfoniko bat edukitzea"

26. orrialdean.



J. Inazio Sasiain

Urbano-gidaria

"Helikopteroak atsegin ditut; beti izan dut helikoptero karneta ateratzeko gogoia"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1723. Xabier Munibe Idiakez, Peñafloredako kontea, Azkoitia jaio zen urtarrilaren 24an. Euskalerraren Adiskideen Elkarte sortu zuen 1765ean, eta lau urte geroago elkarsteak Bergarako Errege Seminarioa sortu zuen. Bergaran hil zen 1785ean.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1766. Manuel Larramendi, euskaltzalea hil zen urtarrilaren 29an.

1865. Urtarrilaren 26an, Sabino Arana Goiri, Eusko Alderdi Jeltzalearen sortzailea, jaio zen Abandon.

1921. Alaves taldea sortu zen urtarrilaren 23an.

MUNDUAN GERTATUA

1887. Pariseko Eiffel dorrearen lehen harria jarri zen urtarrilaren 28an.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 23

18-20-28-45-47-48 (osag.4/er.7)

Astelehena 26

3-11-19-24-27-41 (osag.38/er.1)

Martitzena 27

1-19-20-23-31-44 (osag.35/er.8)

Eguaztena 28

12-19-32-37-39-40 (osag.42/er.7)

PRIMITIVA

Eguena 22

3-4-14-22-25-41 (osag.8/er.2)

Zapatua 24

7-14-15-30-31-38 (osag.27/er.3)

Domeka 25 *Gordoa*

12-19-33-40-43-45 (osag.34/er.4)

ONCE

Eguakitza 23 (K. seriea: 158) 49.119

Astelehena 26 79.893

Martitzena 27 54.176


Eguaztena 28 40.139

BESTE BATZUK

Bedelkarreko harakinak 9.893

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan, zero hodeitsua izango dugu eta tarteka euria egingo du. Temperaturak berdin jarraituko dute eta haizeak ekialdetik joko du. Domekan, eguraldi hobea izango dugu eta zero urdinak eta lainoak tartekatuko dira.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: Otsailak 3



Ilbete: Otsailak 11



Ilbehera: Otsailak 19



Ilberri: Otsailak 26

Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:24



Gorde: 17:33

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 22	11	-2	-
Eguakitza 23	12	-3	-
Zapatua 24	8	2	3,8
Domeka 25	4	3	2,1
Astelehena 26	8	-3	0,5
Martitzena 27	11	1	-
Eguaztena 28	12	7	-

farmaziak

Eguakitza 30

PUY. 22:00ak arte

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

MORALES. 22:00etatik aurrera

Araba etorbid., Arrasate. Tf. 79 18 65.

Zapatua 31

GUALLAR. 22:00ak arte

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

AZKOAGA. 22:00etatik aurrera

Ferrerias 1, Arrasate. Tf. 79 15 15.

Domeka 1

GUALLAR.

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

Astelehena 2

ESTELLA.

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

Martitzena 3

MOZOS.

San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

Eguaztena 4

CAMACHO.

Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

Eguena 5

PUY.

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

ogia

Domeka 1: Mizpildi.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulantzia	55 49 62
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

Udala

Udaletxea	77 91 00
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

Prensa berriemaleak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57

Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuen Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritza	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro ludoteka	76 23 76

hamaika ikusteko jaio ginen!

Etxe ekologikoa

Asmatu dute argiteria eta estolderiari lotu beharrik ez daukan etxea. *Ecolodge* izena dauka eta ordu gutxitan eraikitzen da; etxe prefabrikatu horietakoa da. 8 milioi eta erdi pezeta kostatzen da eta eguzki energia erabiltzeko eguzki plakak ditu teilatuan. Ur zikinak erreziklatzeko sistema berezia ere badauka. Etxeak forma borobila dauka eta oso argitsua da.

■ jaioetakoak

BERGARA
Irati Murgiondo Izagirre
Urtarrilak 15

■ hildakoak

BERGARA
Eulogia Iturbe Lizarralde
Urtarrilak 25, 80 urte
Maria Purificación Gabilondo Artiz
Urtarrilak 21, 86 urte
Regino Sarasketa Amuskibar
Urtarrilak 27, 82 urte

zorion agurrak



Purita Zabalo
64 urte beteko ditu
otasailaren 3an.
Zorionak tia Puri!



Olatz Sanz Urzelai
5 urte beteko ditu
otsailaren 5ean.
Zorionak aitona eta
amamaren partetik!



Ane Sanz Urzelai
Urtebete egin zuen
hilaren 28an...



Nerea Sanz Urzelai
...eta honek ere bai.
Zorionak bioi aitona
eta amonaren
partetik!



Borja Pueyo
Domekan 4 urte
beteko ditu.
Mila zorion etxeko
den-denon partetik
Borja!



Anartz Garcia Urkiola
6 urte beteko ditu
domekan.
Zorionak etxeko
guztion partetik!



Ana Belastegi
19 urte bete zituen
martitzenean.
Zorionak etxeko
partetik!



Ines Lamarain
85 urte beteko ditu
domekan.
Mila zorion
etxeko guztion
partetik!

bertako berbak *Juan Martin Elexpuru*

Altare nausixa moduan apaingduta

Dotore jantzita, orraztuta, pintatuta, doazen emakumeengatik esan ohi da, ironiaz edo kritika guraz.

- Ezkonduta egon arren orikusikon edozein astegun buruzurittan altare nausixan moduan apaingduta.

JOSU OKINA

■ eskela

Damaso Santos Arroyo

Meza bere oroimenez domekan,
otsailak 1, eguerdiko 12:45etan, Basalgon.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldezkurretik eskerrik asko lagunen partez.

Eskelak, eskertzak edo urte-mezatarako deiak jartzeko
76 03 97 telefonora deitu edo etorri Berrigarara (Errotalde jauregia z/g).



Mikel Aginagalde
Astelgehenean
5 urte beteko ditu.
Zorionak
famiiliako
partetik!



Anne Lopez
Zapatuan, hilak 31,
16 urte beteko ditu.
Zorionak
famiiliako
partetik!



Luziano Baladron
Zapatuan 32 urte
beteko ditu.
Zorionak lagunen
partetik!



Juan Asula
Martitzenean, hilak
27, 64 urte bete
zitu.
Zorionak fami-
liako
partetik!



Antxon Hernandez Aiastui
Ostailaren 5ean 9
urte beteko ditu.
Zorionak fami-
liako
partetik.



Lierni Alberdi
Domekan 16 urte
beteko ditu.
Zorionak "Bruji"
zure kuadrilako
partetik!



Ana Oianguren
Eguenean 5 urte
bete zituen.
Zorionak anaiaren
eta gursoen
partetik!



Leiane Martinez
Gaur, hilak 30,
13 urte bete
ditu.
Zorionak etxeko
partetik!

■ PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 07:35, 08:35, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05. Domeka eta jaiegunak: 08:35, 09:50, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 17:00, 21:00.

ANTZERKIA

► **L'OM Teatro** taldearen "Zapping" antzezlan gaur, ostirala, 22:30etan, Elorrioko Arriola Aretoan.

► **Oihulari Klown** taldeak kontsumismoari buruzko parodia egingo du bihar, zapatuan, 11:30etan herriko kaleetan, 12:30etan azokan eta 19:30etan Plazan.

MUSIKA

► **Etsaiak, Ekon eta Parasma** taldeak gaur, ostirala, 23:00etan Jam aretoan.

► **The Allnighters**, gaur ostirala, 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

► **Enrique Bunbury** otsailaren 8an Jam aretoan.

ERAKUSKETA

► **Martxe Aranaren** oleo eta guache erakusketa Nahikarin.

► **San Antonio** auzoari buruzko margo erakusketa Gure Ametsa elkarte, egunero 19:00etatik aurrera zabalik.

IKASTAROAK

► Arrasateko Gazte Zerbitzuak **dantza karibe-arrei buruzko ikastaroa**

MIKEL VICENTEREN ALDE

Jaialdia

Udal Pilotalekuan

Noiz: *zapatuan, 22:00etan.*
Sarrera: *1.000 pezeta.*

Bihar, zapatua, Mikel Vicenteren aldeko jaialdia iragarri dute Mikelen lagunek eta familiartekoez. Jakingo duzue, Mikel Vicente 21 urteko bergararra, urriaren 6an izandako kotxe istripu larriaren ondorioz, Arrasateko Aita Menni ospitalean ingratsuta dago. Lagunek, ordutik, hainbat ekitaldi antolatzeari ekin zioten, Mikel Vicente Aita Mennin egoteak, hilero, milioi bat suposatzen baitu. Gutxienez, datozen hiru hilabeteak ere Aita Mennin eman be-

harko ditu Mikelek eta, beraz, biharko jaialdian ahalik eta ikusle gehien bildu nahi da Frontoian. Horretarako, jaialdi erakargarria antolatu da; besteak beste, herriko abesbatzak, abeslariak, trikitilariak, txistulariak eta dantzariak izango dira eskenatokian.

Hainbat taldek ziurtatu dute euren partaidetza dagoeneko: besteak beste, Aritzeta abesbatza, Alai Taldea, Bergarako Orfeoia, Aitzol Mujika kantaria, Josune eta Edurne bikotea, Jardun Trikiti Eskolako ikasleak, Lezoko txistulari banda eta Xamatz dantzataldea ere prest azaldu dira jaialdian kolaboratzeko. Bestalde, jaialdien atsedendian, Gabonen atarian martxan jarritako zozketa egingo da. Boletoak oraindik salgai daude herriko taberna eta dendetan. Era berean, jaialdira joan ezin

eta Mikel Vicenteren aldeko laguntza eman nahi dutenek, herriko aurrezki kutxetan irekitako kontu korrontean dirulaguntza emateko aukera daukate.

Biharko jaialdirako sarrerak 1.000 pezetan jarriko dira salgai aurrez, Lazkano oinetako dendan, Kultur Etxean eta Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan. Zapatuan pilotalekuko takilan eskuratu ahal izango dira.



Josune eta Edurne kantariak ere jaialdian hartuko dute parte.

(otsailaren 23tik) antolatu du. Argibideak: 77 00 65.

► **Hezkide Eskolak** "Familia barruan ekintza hezitzailearen oinarrizko heziketa" (martxoaren 6tik apirilaren 2ra bitartean) eta


"Euskararen sustapena" (otsailaren 27an eta 28an eta martxoaren 6an eta 7an) izenburuko ikastaroak antolatu ditu Donostian. Izen-ematea otsailaren 13a baino lehen. Argibideak 31 14 74 telefonoan.

► **Tai Chi, Chi Kung, yoga eta meditazioari** buruzko ikastaroa Zestoako Sastarrain baserrian, martxoaren 6tik 8ra. 12.500 pezeta, alojamendua barne. Izen-ematea otsailaren 27a baino lehen. 71 41 91.

Bolintxo
OKINDEGIA

domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26



Irizar 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 76 53 12

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

LEHIAKETAK

► Udal Kirol Zerbitzuak bikotekako **frontenis txapelketa** antolatu du otsailaren 19tik aurrera. Izen-ematea otsailaren 11a baino lehen. 77 91 67.

► **Arrasateko Udalak** martxoaren 8an ospatuko den **Emakumearen egunerako kartel lehiaketa** antolatu du. Kartelen neurriak, gehienez, 50x75 zm. koak izango dira eta teknika librea izango da. Kartelek testu hau eraman beharko dute: "Martxoak 8: denok batera". Irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu. Kartelak otsailaren 18a baino lehen jasoko dira Arrasateko Udaleko Emakume Sailean. Argibideak 79 41 39 telefono zenbakian.

DEIAK

► **Formigalera eski irteerak** otsailaren 7 eta 8an; otsailaren 28an eta martxoaren 1ean; martxoaren 7 eta 8an eta, azkenik, martxoaren 19tik 22ra. Alpeetara irteera apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30etara.

► Diputazioak 65 urtetik gorakoei zuzendutako **termalismo programa** jarri

du martxan. Aurten Zestoa, Arnedillo, Fitero eta Lierganes dira eskaintzen diren bainuetxeak. Txanda bakoitza 11 eguneko da. Argibideak: 900 43 43 43.

► **Odol emaleen elkarteak** dei egiten du eguaztenean, 18:30etatik aurrera egingo den odol ateraldian parte hartzeko. Odol emaleek bereziki gazte jendearen partehartzea areagotu nahi dute. Interesdunak eguaztenean goian aipatutako orduan agertu daitezke Seminarioko lokalera.

► **Mariaren Lagundia ikastolako** ikasleak eguaztenean, **Santa Ageda** bezperan, hirugarren munduaren alde kantuan aterako dira, 11:00etatik bazkalordurarte. Jasotako dirua Mexikoko Guerrero estatuan aurrera eraman nahi diren proiektuetara bideratuko da.

► **Presoak Euskal Herrira** ekimenak Angiozarren firma bilketa egingo du domeka eguerdian. N.A.N. zenbakia beharrezkoa izango da.

JAIK

► **San Blas auzoa.** Martitzenean, San Blas egunean, 11etan meza eta opilen bedeinkaketa. Ondoren salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Sé lo que hicisteis el último verano

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

George de la jungla

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00.

Domeka: 11:30.

Wilde

Eguena, zine kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Titanic

Eguakitza: 18:30, 22:00.

Zapatua: 18:30, 22:00.

Domeka: 18:30, 22:00.

Astelehena: 18:30, 22:00.

Martitzena: 18:30, 22:00.

Wallace & Cromit (euskaraz)

Zapatua eta domeka: 16:45.

ARRASATE. Amaia

Clockers

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Abre los ojos

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Titanic

Eguakitza: 18:30, 22:15.

Zapatua: 18:30, 22:15.

Domeka: 18:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 18:30, 22:15.

OÑATI. Santana

Tormenta de hielo

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

La buena estrella

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ANTZUOLA. Gazinema

Striptease

Eguakitza: 22:00.

Space Jam

Domeka: 16:30.

SE LO QUE HICISTEIS EL ULTIMO VERANO

Zuzendaria: Jim Gillespie.

Aktoreak: Ryan Phillippe eta Jennifer Love Hewitt.

Kurtso amaiera ospatzen ari zirela, lau ikaslek ezezagun bat kotxearekin harrapatu eta gorpua itsasora botako dute. Baina handik urtebetera bakoitzari ohar bat helduko zaio "azken udan zer egin zenuten badakit" esaldiarekin. Norbait badaki euren sekreto...

GEORGE DE LA JUNGLA

Zuzendaria: Sam Weisman.

Aktoreak: Brendan Fraser, Leslie Mann eta Thomas Haden Church.

Hainbat aldiz iragarrita, ez dakigu oraindik honetan George Novedadesera helduko den. Walt Disney produktorearen komedia honetan ohianean bizi den George-ren gorabeherak azaltzen zaizkigu. Tarzanan moduan, hirira joateko aukera izango du, baina berriz itzuliko da basora hainbeste maite dituen animaliak defendatzeko.

WILDE

Zuzendaria: Brian Gilbert.

Aktoreak: Stephen Fry, Jude Law eta Vanessa Redgrave.

Estatu Batuetan eta Kanadan urtebete eman ondoren, 1883an Oscar Wilde Londone-ra itzuli da. Idazle ospetsu netakoa bilakatu da, ezkondu dago eta bi seme-alaba dauka. Baina lagun batek Oxfordeko, ikasle bat aurkeztuko dio, Alfred, eta Wildek, gutzit txundituta, dena lagako du berarengatik.

BERRIGARAK ez du gerta litekeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Kizkur

Ilcepaudegia
Solariuma

Bolu 51 Tf. 76 50 32

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra,
poliuretanoa... Leihoak,
ateak, manparak...



Eska ezazu
aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA

Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak martxan jarritako kontsumoari buruzko kanpainaren barruan, elikadura gaietan aditua den Silvana Huegun Oilur taldeko kideak 13-14 urteko gazte txoei zuzendutako hitzaldia eman zuen martitzenean Novedades aretoan.

Edu Mendibil

G. Nola jaten dute gaur egungo neska-mutiko gaztetxoek?

E. Zorionez, Euskal Herrian ez dira ohiturak asko aldatu eta, oraindik ere, bertako etxeetan potaje edota berdura asko jaten da. Pekatutxo bat egiten da haragia eta arrainarekin, hemen gehiegi jaten delako. Egia da beharrezkoak direla, baina neurri egokian, astean hiru egunetan arraina edo okela jatea nahikoa da. Bestalde, etxetik kanpo, gazteak "janari azkarra" delakoa hasi dira jaten: pizzak, hamburgeresak eta horrelakoak. Tarteka jatea ondo dago, baina ez ohitura bezala hartzea. Orain gazteek ez dute ezer nabaritutako, baina hemendik urte batzuetara eraginak izan ditzake horrek. Gozokiekin ere herri mailan, anbulatorio mailan, sekula baino diabetes eta kolesterol arazo gehiago ematen hasi dira.

G. Zer egin daiteke "janari azkarrak" hartu duen indarraren aurrean?

E. Alde batetik, familierengandik, gazteek elikadura garrantzitsua dela jaso behar dute. Orain (askotan errebelatuetatik) etxean jaten ez dutena berreskuratu dute gero. Bestalde, ikastetxe eta instituzioen aldetik ere informazioa ematea oso garrantzitsua da.

G. Label kontuarekin,

SILVANA HUEGUN

Oilur atseden etxeko kidea

"Umeengan gero eta diabetes eta kolesterol arazo gehiago ematen hasi dira"



haragiaren kontsumoa bultzatzen ari dira.

E. Hemengo haragia bultzatzea eta jendeak informazioa izatea ondo dago. Herri txikietan hemengo haragia saltzen da, baina hiriburuak askotan kanpoko haragia saltzen dute. Hori, Britania Handian eman den behi zoroen kasuarekin lotuta, beldurga-

"Euskal Herriko dieta ondo dago, baina arrain eta haragi gehiegi jaten dugu; dieta mediterraniarrera hurbildu beharko ginateke"

ria da. Informazio zuzena jasotzea komeni da.

G. Elikadura kontuetan alde bateko eta besteko iritzia entzuten dira, kontra-jarriak askotan. Zeinek dauka arrazoia?

E. Ni, berez, ia egunero barazkijalea naiz, baina jendeari haragia eta arraina gustatzen zaio eta hori ona da neurri batean. Zuk behin informazioa edukita, hobeto aukeratu dezakezu, zer nahi duzun eta zuretzat zer den ona. Azkenean, bakoitzari balio dionak balio du. Elikadura garrantzitsua dela kontutan hartu behar da, horretaz kontziente izan behar gara. Planteamendu horrekin berdin zait bakoitzak zer jaten duen, nahiz eta nire gustoko gauzak ez izan.

G. Euskal Herriko ohiko dieta zure modelutik gertu al dago?

E. Hemengo dieta nahiko ondo dago. Esan bezala, haragi eta arrain piskat kenduko nuke eta, ahal dela, dieta mediterraniarrera hurbildu; berdurak, entsaladak, arraina, esnekiak, oliba olio... Niri "janari azkarra" -ren moda, umeen goxoiak eta horrelako gauzak kezkatzen naute gehien. Elikadura osasuntsua izan behar da.

G. Bukatzeko, elikadurak zenbaterainoko garrantzia dauka bizitza kalitate ona izateko?

E. Elikadura oso garrantzitsua da, baina osasuna ez da elikadura bakarrik. Pentsatzen duenak garbi janda zoriontzu izango dela eta ez dela gaisotuko jai dauka. Behar denean atseden hartzeak (gaur egun estresatuta bizi gara askotan), aktibitate fisikoa egiteak edota mundu emozionalak ere (gustora bizitzeak, harreman onak izateak...) ere badute zirikusia bizimodu osasuntsuarekin. B


Inbertsioetarako 611 milioi pezeta aurtengo udal aurrekontuetan

Oposizioak hainbat kritika egin die aurrekontuei

Udalbatzak aurtengo udal aurrekontuak onartu zituen astelehenean hiruko gobernua osatzen duten alderdien aldeko botuekin eta HBren kontrakoarekin. Aurtengo udal aurrekontu osoa ia 2.720 milioi pezetakoa da. Horietatik 252 milioi Mizpirualde egoitzakoa dira, 59 Udal Euskaltegikoak eta gainontzeko 2.408 milioiak udal aurrekontuei dagozkie.

Iazkoekiko % 28,1 puntutan gora egin dute aurtengo udal aurrekontuek: 1.876 milioitik 2.408 milioira pasatu dira. Igoera hori, batez ere, urten inbertsioetara bideratuko diren 611 milioiek eragin dute; iaz, esate baterako, inbertsioetara 186 milioi bideratu ziren. Bestalde, Udalaren zorra 18,3 puntutan geratu da; 1991. urtean %19,4koa zen eta 1995ean %22koa, Udaletxeko obrek eragindako inbertsio haundiengatik. Victoriano Gallastegi alkateak aurrekontuen filosofia nagusia gastuari eutsi eta herritarren beharrei erantzutea izan dela esan zuen. Hiru ardatz nagusi aipatu zituen: alde batetik, gastu arruntari eutsi egin zaiola, %40an lagaz; bestetik azken urteotan zorrari ere eutsi egin zaiola eta, azkenik, aurtengo inbertsioetara 611 milioi bideratuko direla.

Udalak aurtengo egingo dituen inbertsio nagusiak



honako hauek dira: alde batetik, Labegaraietako industrialdearen lehen fasearen urbanizaziorako 186 milioi bideratuko dira.

Bestalde, Uhola errekararen ubideratze lanak egin ahal izateko, San Migel kalean bota diren etxeetako jabeek indemnitzatzeko 90 milioitik gora gastatuko dira. Obren aurrekontua ia 200 milioi pezetakoa da eta horietatik 130 milioi Jaur-laritzak jarriko ditu eta beste 65 Foru Aldundiak, baina azken hau udal aurrekontuetan jasota dago. Horrez gain, Angiozarko pilotalekua estali eta harmailak eta

aldagelak egiteko 63 milioi bideratuko dira eta beste 14 milioi Angiozarko Beheko kalea konpontzeko. Lau egitasmo hauek inbertsioen %66 osatzen dute. Inbertsioetako beste partida batzuk, Joan XIII. plaza konpontzeko bideratuko diren 10 milioiak, edota Beart herriko artisten lokala egokitzeko bideratuko diren 12 milioiak dira.

HB: "Aurrekontu elektoralistak"

Herri Batasunak udal aurrekontuen osaketan parte hartzeko aukerarik eduki

ez izana eta komisioretatik baztertu izana salatu zuen. Aitor Aranzabalek aurrekontuek kontinuista eta elektoralista kutsua zutela adierazi zuen eta HBk aurrekontuen aurrean egiten zituen hausnarketa eta kritikak batetik, eta HBren uestetan aurrekontuak osatzera-ko orduan izan beharko liratekeen irizpide eta lehentasunak, bestetik, irakurri zituen. Ur kontsurtzioari 100 milioi ematea, landalurretan gestio desegokia egin izana, zor publikoa astunegia izatea edota gastu eta inbertsioei buruzko planifikaziorik eza salatu zituen. B

Industrialdea, Uhola errekararen ubideratzea eta Angiozarko pilotalekuko obrak izango dira inbertsiorik inportanteenak



Artxiboko argazkian, Etxaniz eta Ibaeren askatasuna eskatzeko iaz Senideak-ek egindako prentsaurrekoa.

Jose Mari Etxanizek 18 urte beteko ditu gartzelan otsailean

Bere askatasuna eskatzeko plataforma eratu da

Datorren ostailaren 19an beteko dira 18 urte Jose Mari Etxaniz preso bergararra atxilotu zutenetik. Une honetan, Puerto de Santa Maria 2 espetxean dago eta kartzela zigorraren hiru laurdenak beteta dauzka, epaileak 30 urteko zigorra ezarri baitzion. Etxanizek eguaztenez 41 urte bete zituen.

Amnistiaren Aldeko Gestorak, Senideak taldeak eta Etxanizen askatasuna eskatzeko sortutako plata-

formak hainbat ekitaldi antolatuko dituzte datozen asteetan. Plataformako bultzatzailea den Iñaki Ibae preso izandakoak BERRIGARARI aurreratu dionez txosten bat prestatzen ari dira Udalean, Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordean eta Entzutegi Nazionalan aurkezteko. Zigorraren hiru laurdenak bete dituela eta, Etxaniz aske lagatzea eskatuko du plataformak.

Jose Mari Etxanizekin batera, Iñaki Ibae eta Josu-

ren Murgizu atxilotu zituzten eta bera da espetxean jarraitzen duen bakarra. Ibae iazko abuztuan irten zen Langraitzeko kartzelatik.

Bestalde, Presoak Euskal Herrira ekimenak sinadura bilketa egingo du domeka eguerdian Angiozarren. Sinatzen dutenek Nor-tasun Agiriaren zenbakia ere idatzi beharko dute. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko, orain arte 2.000 sinadura inguru batu dira Bergaran. B

HBren alegazioak Beasain-Durango korredoreari

Joan zen asteko BERRIGARAN Zumarraga eta Bergara lotuko dituen errepideari eta ekialdeko saihesbideari Udalak aurkeztutako alegazioen berri eman genizuen. Alegazioak Plenoan onartu ziren, baina HBko zinegotziak ez ziren bertan izan. HBk aurkeztutako alegazioak helarazi dizkigu. Orokorrean, HB bat dator udal gobernuak onartutakoarekin. Halere, badaude ezadostasun puntu batzuk. Esate baterako, Beasain-Durango korredorearen aldeko apostua egiten du HBk, baina Eibar-Gasteiz autopistaren kontra azaltzen da. Autopistaren ordez, oraingo errepidean hobekuntza sakonak egitea proposatzen dute.

Bestalde, Beasain-Durango korredorean Bergara eta Antzuolara-ko irteera bakarra egitekotan, Usastiko irteeraren ordez, Antzuolatik gertuago dagoen beste sarrera-irteeraren bat egitea eskatzen du HBk.

Azkenik, Aritzetako tunelaren trazaketan al-daketa proposatzen du, iparraldeko maldan dagoen pagadia babestu ahal izateko. B

Siaska

Dena zure haurrarentzako

San Pedro 10 Tf. 76 10 39

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 76 23 79



ZAPELAITZ
Taberna

Eguneko menuak astelehenetik ostiralera

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA

Herriko artistentzat Bolun kultur gunea egokitzeko 12 milioi bideratuko dira

Udalbatzak joan zen astelehenean onartu zituen aurrekontuetan jasotzen denez, diru zati bat Bolun kultur gunea bat ekipatzeko aurreikusita dago. Tramite guztiak egin barik egon arren eta erabakia Gobernu batzordean hartzeke bada ere, gobernu taldearen asmoa da Udalak Bolun duen lokala egokitzeko 12 milioi pezeta gastatzea. Lokala Beart-ek, herriko artisten elkarteak, kultur iharduerak antolatzeko erabiliko luke.

Boluko frontoiaren gainean dagoen lokalean haurreskola jartzeko asmoa zuen Udalak orain dela urte batzuk, baina egitasmoak ez

zuen aurrera egin eta azken urteetan lokala hutsik egon da. Lokalak 400 metro karratu ditu eta argi edota ur

instalazioa egiteke dauka; beraz, oinarrizko obrak egin beharko dira lehenengo: elektrizitatea sartu, komu-

nak egin, zorua egokitu... Lan horiek egiteko 12 milioi pezetako aurreproiektua aurkeztu zioten Beart-eko ordezkariak Udaleko kultura zinegotziari. Udala lanok egiteko dirua jartzeko prest ei dago eta 12 milioi pezetako dirulaguntza aurreikusita dago aurrekontuetan.

Bergarako artisten elkar- tea aspalditik dabil era askotako iharduerak antolatzeko lokal baten atzetik. Oinarrizko obrak egiten direnean, ikastaroak antolatzeko gelak, pintore eta eskultoreentzako estudioak eta hitzaldiak, bideo emanaldiak edota bilerak antolatzeko gelak egokitu- ko dira. **B**



Beart-ek era askotako iharduerak antolatzen ditu herrian. ARTXIBOA

Hitzartu baino pilota jaialdi gutxiago antolatu ditu Asegarcek

Bergarako Udalarekin hitzartu zuen baino pilota jaialdi gutxiago antolatu zituen iaz Asegarcek Udal Pilotalekuan. Urtean, gutxienez, 25 pilota jaialdi antolatzeko konpromezua hartu zuen Asegarcek, baina 16 bakarrik antolatu zituen 1997an zehar. Udalak kontuak hartu dizkio eta arra-

zoiak eskatu dizkio pilota enpresari. Honek, Bergarako frontoian iaz egindako konpocketak zirela eta, ezin izan zituztela hainbat jaialdi antolatu argudiatu du. Udalak arrazoiak onartu ditu, baina aurten aitzakiarik ez dutela eta hitzartutakoa bete egin beharko dutela esan dio Asegarceri. **B**

Jardun elkarteak Kartzela Zaharrera eroan ditu bulegoak

Joan zen astetik Kartzela Zaharrean, kartzeleroaren etxea zenean, daude Jardun elkartearen bulegoak. Aurrerantzean, beraz, lehen Masterreka 13an zegoen bulegoa Kartzela Zaharrean izango da. Elkarteko bazkideek zein edozein herritarrek, kontsultaren bat egin nahi izanez gero, egoi-

tza berrira jo beharko dute. Honenbestez, gaztetxoentzako ihardueretarako edo elkarteak antolatzen dituen ikastaroetarako erabiliko da Kartzela Zaharra; kartzeleroaren etxean, berriz, elkartearen bulegoa egongo da. Jarduneko langileak bertan izango dira eta telefona hau duzue: 76 36 61. **B**

Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 76 03 57

LONBIDE
ONETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 76 10 57

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale 6 Tf.: 76 13 29

Berrigara

309 zenbakia,
1998ko urtarrilak 30.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 76 03 97. Faxa: 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil,
Mikel Elkorobereizbar. **Maketazioa:**
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina
Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza.
Testuen zuzenketak: Estepan
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio**
kontseilua: Miguel Angel
Elkorobereizbar, Alex
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia:
Edu Mendibil.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Berrigarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurleritzako
Kultura saila

gutunak

Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

BERRIGARA GIDA 98

Joan zen astean banatu zen Berrigara Gida 98, herriko telefonoak biltzen dituen liburutxoan telefono batzuk ez genituen zuzen jaso.

Jarraian aipatuko ditugu zeintzuk diren ondo dauden telefonoak edo erabili behar direnak. Arkitektoak sailean, 29. orrian, Iñaki eta Xabier Berasategiren telefonoak agertzen dira. Bien telefono zuzena hau da: 76 03 46. Bestalde, Iturgintza-beregintza sailean, Gaskidieren telefonoa ez dugu zuzen ipini. Ondo dagoena hau da: 76 49 00. Azkenik, Udal artxiboaren telefonoa ez da agertzen. Honako hau da: 77 91 32. Barkartu eragozpenak.

Bestalde, joan zen astean norbaitek Gida jaso ez bazuen, Berrigaran hartu dezake. Etorri eta eskatu besterik ez dauka.

Berrigara

KIROLDEGIKO LONAK

Kiroldegian entrenatzen ibiltzen garen taldeok arazo bat daukagu pista ezberdinak bereizteko erabiltzen diren lonekin. Kiroldegiko barruko pistan talde bat baino gehiagok koinziditzen dutenean, ttxutik lurrera datozen lona erraldoi batzuk jartzen dira bakoitzaren terrenua markatzeko. Baina aipatutako lona horiek ez dira lurrera iristen eta baloiak lurretik doazenean behinik behin pista batetik bestera pasatzen dira inolako arazorik gabe.

Eta horrek uste baino arazo gehiago ekartzen du. Arriskua dago beste nonbaitetik datorren baloia zapaldu eta bihurtuak izateko.

Zorionez, oraindik ez da lesio larririk gertatu baina berandu izan baino lehen arazoaren berri eman genion Kirol Zerbitzuari. Oraindik ez dute ezer egin hori konpontzeko eta beraz lehen bezala jarraitzen dugu. Ez dut uste oso nekeza

izango denik arazoari irtenbide bat topatzea. Guztiok irabaziko dugu eta lasaiago entrenatu ahal ziango dugu Kiroldegian.

Xabier Lijo

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

Kontsumo gaietan, kontsumo elkarteek ematen dituzten aholkuak kontutan hartzen dituzu?



Juli Lete

Gutxi. Egia esan, nik kaduzitate fetxak, kalitatea eta bar begiratzan ditut. Hori zaintzen dut. Kexaren bat egitekotan produktua erositako dendara joaten naiz.



Pedro Ezenarro

Kasorik ere ez diet egiten. Joan, erosi eta kitto. Normalean dendetan salgai dauden produktuak kalitate onekoak direlakoan nago eta fidatu egiten naiz.



Mari Vicente

Zaintzen dut erositako gauzen kalitatea, baina publizitateari edota kontsumo elkartearen gomendioei ez diet kasu haundirik egiten. Ez dut inoiz kexarik izan.



Karlos Isasi

Batez ere Eroskiko aldizkariak ematen dituen aholkuak hartzen ditut kontuan. Produktuen arteko konparazioak, gomendioak eta horrelakoak ondo daude.



Maria Karmen Arruti

Kaduzitate fetxak eta kalitatearekin arduratzen naiz batak bat eta orain arte behin bakarrik izan dut arazo bat. Nahiago izaten dut dendarekin konpondu.



Igor Oregi

Ez naiz gauza horiekin arduratzen. Produktua berria eta kalitatezkoa den zaintzen dut. Kontsumo elkarteak ondo daude, baina oraingoz ez zait tokatu joan behar izatea.

■ bai, esan!



Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Josune Goitik deitu digu esanez Arrasaten guardiako farmazia jartzeko bailarako botikariak egin duten eskaeraren kontra dagoela. Botikariak diote kalitate eta zerbitzu hobea eskainiko dela Arrasaten guardiako farmazia bakarra jartzerri; Josuneren iritziz, hori onartezina da guardiako farmaziek herri guztietan eman beharko lukezela zerbitzu ona. Beste lantegi batzuetan ere erreleboak antolatzen dira eta botikariak ere zerbitzua eskaintzeko antolatu beharko lirakeela esan digu. Bere ustez, guardiako farmazien komarkalizazioak herritarren oinarrizko zerbitzuetan atzera egitea ekarriko luke.

■ ikuspuntua: **roberto izagirre**

Nahigabea

Joan zen astean egindako bisitaldiaren ondoren -komunikabideei "esker" hain goetsigarria egin zaiguna askori- Aita Santua itzuli da bere kabira. Pake santua. Hori bai, santu gorenaren artean, martiri moduan sartzeko aukerak bihez artetik ihes egin dio; izan ere, seguruenik han sartuko baitzen mamuak benetako fede bakarrera berreskuratzen zenez gero.

Dena dela, kubatar bat baino gehiago harritu samartua geldituko zen, kristauen miraria non dagoen garbi ikusi barik: alde



batetik, antisorgailuak erabat ukatu eta, bestetik, abortoa gogor gaitzetsi baitzituen jefek; eta, bitartean, kubatar asko aho zabalik, gorputzak astintzeko asmoarekin joaten zaizkien turista kristau mordoak ikustean. Hau misterioa!

Fidel eta Karol, Karol eta Fidel; bien artean 150 pasa, eta ez dira ez munduko mandatarien arteko salbuespena, beste mordo bat ere badira jubilazio garaia aspaldi atzen utzitakoak: Yeltsin, Pinochet, Fraga, erli-

jio oroko mandatariak... Nik, nahiz eta Fidel erabat miretsi -Kuba betidanik izan baita gutako askorentzat erreferentzia gune-, gus-tura esango nioke errelebo ordua ate joka dabilela aspalditik, burua eta bihotza arin izan arren. Juan Pablari, berriz, zer esanik ez, Orienteko plazan gailego ilunbetsu batek pakea eman aurretxean zeukan traza eta hitz jario bera nabaritu dizkiot. Eta gainera guztie ere gauza bera, lehenbailehen laga dezatela gazteagoen eskuetan boterea, euren, geurea, baita jorratu beharreko etorkizuna. Gainera, horrela Komandantea meztan ikusteak emandako disgustoa bezalako-rik ez guke jasan beharko. B

■ asteko menua

Gazta-tarta

JABI LARRAÑAGA,
Infernokua tabernakoa



OSAGAIK (4 lagunentzat)

- Maria gailetak, 16.
- Gurin piska bat
- Esne kondentsatua, pote txiki baten 3/4.
- Igurtzitzeko gazta 2 terrina.
- Esnaegain likidoa, 2 kaxa txiki.
- Jelatina naturala, 3 orri.

PRESTAKETA

- Jelatina ur hotzetan jarri, bigundu dadin.
- Gailetak txikitu eta urtutako gurinarekin nahastu; ondoren, nahastea molde desmuntagarri batean jarri.
- Esne kondentsatua gaztarekin nahastu eta su motelean urtu, ore bateratua lortu arte.
- Jelatina-orriak banan-banan gehitu eta sutatik kendu ondoren esnegain harrotua bota. Moldean ondo banatu eta hiruzpalau orduz hozkailuan laga, gogortu arte.
- Moldetik atera eta jateko gertu dago, hotza jakina!

■ adituen esanetan

Dermatitis seborreikoa

CRISTINA GARCIANDIA, *dermatologoa*

Kontsultarako motibo nagusienetako izaten da dermatitis seborreikoa. Edozein adinetan ager daiteke, haurrengan zein zaharrengan, eta ez da ezagutzen zergatik ematen den. Dermatitis seborreikoa ez da heredagarria eta ez da kontajiatzen ere.

Sego-guruina asko diren lekutan agertzen den ekzema litzateke baina ez da azalean grasa kopurua haunditzen delako ematen. Buru-azalean, bekaintan, sudurrean, belarri atzealdean edota bularrean ezkata koipetsuz estalitako plaka gorri batzuk agertzen dira; ez du ez minik ezta hazkurarik sortzen.


Dermatitis mota hau broteka sortzen da (berogailuak eta estresak zerikusia badute agertzeko) eta kronikoa da, larria ez izan arren; beraz, brotea ematen denean tratatu behar da eta horretarako mundrun txanpuak (buruan) edota potentzia gutxiko kortikoideak (krema antiinflamatorioak) gomendatzen dira. Kortikoideak gehiegitan erabiltzea ez da komeni.

Esan bezala, dermatitis seborreikoa nahiko gaisotasun arina da baina estetikoki ez da oso atsegina. Beraz, brotea azaltzen denean tratamendua jarraitzea izaten da onena. B

■ bergarako gordailutik

APAIZAK BERGARAN Imanol Sorondo

*S*an Pedro elizan 1486 urtea baino lehenago apaiz kopuru finkorik ez zen; batzuetan gehixeago, beste batzuetan gutxixeago. Urte horretan aurrerantzean 8 izatea erabaki zen; lau zakote edo otamen osokoak eta beste lau erdikoak, horrela sailkatzen baitzituzten bakoitzaren diru sarrerei begiratu-ta. 1541. urtean, berriz, 12 apaiz izatea erabaki zen: lau zakote oso-ko, lau erdiko eta lau laurdenakoak. Hamabi izateko erabakia elizkizun asko ospatzen zirela eta hartu zuten.



Santa Marinako elizan, 1628. urtean 7 apaizen izenak idazten dira baina baliteke gahiago izatea.

Bestalde, Jesuitak XVI. mendearen bukaeran etorri ziren Bergarara. 1658. urtean 13 zeuden, horietatik lau anai bezala. Tartean zeuden erretorea, hiru sermoilari, hiru irakasle, sakristaia eta atezaina, diru kontuen arduraduna eta sukaldaria.

Apaiz gehienen deiturak Bergarakoak dira, Jesuitenak ezik. B

Euskaraokearen grabazioa

Izugarrizko ikusmina sortu zuen aurreko eguakitzean **ETB-1eko Euskaraokea** saioaren grabaketak. Hotzari aurre eginez, jende dexente bildu zen Plazan gaztettoak kantuan eta dantzan ikusteko. Grabazioa ia lau orduz luzatu zen eta tarte horretan 60 bat gaztetrok hartu zuten parte lehiaketan, **Ixiar Oreja eta Aitor Furundarena** auzkezleen esanetara. Partaideak primeran aritu ziren kamaren aurrean, telebistako izarren antzera. **Otsailaren 9tik 13ra** bitartean emango da Bergaran egindako grabazioa.



Inaugurazio ekitaldia

Euskadiko Kutxak Fraisko zurin zabalduko bulego berriaren inaugurazio ekitaldia egin zen aurreko eguenean. **Iñaki Eguren** zuzendariak, bildutakoiei ongi-etorria eman ondoren, bezeroen laguntza eskertu eta bulego berriak zerbitzuaren hobekuntza ekarriko duela aipatu zuen. **Don Nicomedes Larrañaga** apaizak bedeinkatu egin zuen lokal berria eta jarraian, luntxa banatu zen. Herri-tar eta erakundeetako ordezkari ugari bildu ziren bertara.

Txakolin aurkezpena Parteittin, San Bixente jaietan

San Bixente jaia ospatu zen domekan Angiozarko Parteitti auzoan. Eguraldiak lagundu ez arren, jende ugari hurbildu zen bertara. Mezaren ostean, Txinparta taldeak alaitutako erromeria izan zen eta jarraian salda eta txorizoa banatu ziren. Amaitzeko, eta azken urteotako ohiturari jarraituz, **Kataide Deba Garaiko txakolinaren aurkezpena** egin zen. Kataideko **Javier Arregiren** hitzetan iazkoa oso uza ona izan da eta hala frogatu ahal izan zuten Parteittin bildutakoek. Kostaldekoa ez ezik, barrualdekoa ere txakolin bikaina da...



JOSE ANGEL MIKED



LORAMENDI

- Forro polarrak
 - Txamarrak
 - Txandalak
 - Sudaderak
 - Zapatilak eta abar
- ZATOZ!**

% 50

San Andres

ARRASATE

Garibai

Zatoz gure Bergarako Saldu Osteko instalazioak ezagutzera.



Pneumatiko berriak behar dituzu?

Erabil itzazu Renault Menu Horiaren abantailak.

5.738

Pta.tik

muntaketa eta gurpil-berdinketa dohainik



TALLERES MECA

Amillaga, 5 - BERGARA - Tel. 76 40 68

RENAULT

Eguneko zentroa

Aurreikusitako hamar plazak bete dira



Eguneko zentroa urriaren 1ean jarri zen martxan eta hasieran zazpi gaisorekin zabaldu bazen ere, gaur egun aurreikusitako hamar plazak bete dira. Zentroa menpekotasun fisikoa zein psikikoa duten 60 urtetik gorakoei zuzenduta dago, helburu nagusienetako bat euren senideei ere atsedena ematea delarik. Eguneko zentroa astebaruan izaten da zabalik Jubilatuen egoitzaren sarreraren ondoan.

Menpekotasun fisikoa zein psikikoa dutenei zuzenduta, Eguneko zentroa urrian jarri zen martxan. Argazkian bertako klinika laguntzaileak emakume talde batekin ariketak egiten.

Etxean alzheimer gaisoak zituzten senideen eskaerari erantzuteko sortu zen Eguneko zentroa, baina Xabier Legorburu Udaleko gizarte laguntzaileak azpimarratzen duen moduan, "nahiz eta hasieran alzheimer gaisoen senideek eskatuta sortu, zentroa beren kabuz baliatzeko ezintasun maila altua duten guztiei zuzenduta dago; menpekotasun fisikoa zein psikikoa dutenentzat, alegia. Euren kabuz baliatzeko gauza ez direnentzat ireki

zen zentroa, beraien senideei atsedena eman eta modu horretan beste aktibitate batzuk egiteko aukera izan dezaten". Eguneko zentroan sartzeko 60 urte baino gehiagoko dependiente fisiko edo psikikoa izatea (eguneko ordu askotan pertsona baten laguntza beharra edukitzea) eskatzen da. Hala ere, Legorburuk azaldu digunez, gaur egun alzheimer kasuak dira nagusi zentroan: "zentroa eskaera konkretu baten ondorioz sortu zenez, espero zitekeen hori ho-

rrela izatea eta orain arte behintzat denak Alzheimer edo beste demenziaren batek jotako kasuak dira”.

Jarduerak

Zentroa Jubilatuen egoitzan kokatuta dago eta 85 metro karratu hartzen ditu. Bertan hiru espazio edo gune bereizten dira: atsedena area, aktibitateak egiteko erabiltzen dena eta, azkenik, gaisoen beharretarako propio gertatutako bainu geriatrikoa. Gaisoekin Irene Unzueta eta Alaitz Arana klinika laguntzaileak ari dira lanean. Gaisoak goizeko 10etan heltzen dira zentrorra eta goizean zehar orientazioa eta memoria lantzeko ariketak, eskulanak edota

“Ez dugu zentroa haurtzaindegi moduko bat izatea nahi; gaisoak bertan dauden bitartean hobetuz joatea edo, gutxienez, txarrera ez egitea lortu nahi da” XABIER LEGORBURU

gimnasia egiten dute. Eguerdian, 12:00etan, atsedena izaten da eta ordu bata bitartean beste aktibitateen bati ekiten diote. Bazkaria 13:30etatik 14:30etara egiten dute San Joxepen bertan baskaltzen duten jubilatuekin

batera eta 14:45-15:45 bitartean siesta dago programatuta. Arratsaldean, berriaz, ekintza lasaia egiten dira, arratsaldeko bostetan merienda (askotan beraiek gertatutakoa) eta 17:30ak aldera gaisoak euren etxeetara bueltatzeko gertatzen hasten dira. Eguneko zentroa arratsaldeko seiak arte egoten da zabalik, asteleheneetik eguakitzera. Klinika laguntzaileek, egunero, gaiso bakoitzaren jarraipena egiten dute fitxa batzuen bitartez.

Esan bezala, hamar gaiso dira gaur egun zentroan, zortzi emakume eta bi gizon. Euren senideei atsedena emateaz gain, zentroaren helburu nagusiengatik bat, hainbat kasutan behinik behin, zaharren narriadura ahal den neurrian atzeratzea da. Legorbururen hitzetan, “ez dugu zentrua haurtzaindegi moduko bat izatea nahi, aitzitik, gaisoak bertan dauden bitartean hobetuz joatea edo gutxienez txarrera ez egitea lortu nahi da. Bertan egiten diren jokuek edo gimnasia ariketek neurri handi batean hobera egiteko lagun diezaiakete”.

Integrazioa

Bertan daudenen artean osasun maila ezberdinak daude eta bakoitzaren mailaren arabera lan-talde modukoak egiten dira. Badira jubilatuek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzen dutenak ere. Alaitzek eta Irenek jubilatuek eskaintako laguntza eskertu nahi dute: “hasieratik Jubilatuen egoitzarekin oso integrazio ona lortu da,



Eguneko zentroa, tarteko irtenbide bat

Duela gutxirarte, Eguneko zentroan diren ezaugarrietako gaisoentzat Udalak bi irtenbide zituen: erresidentziara eraman edota ezindutako pertsonen Udalak euren etxeetan eskaintzen zien etxex-etxeko zerbitzua, etxeko lanetan, garbiketa pertsonalean edota jaten emateko laguntza, alegia. Bi aukera hauek, elkarbizitza arazoei aurre egiteko, gizarte zerbitzuen baliabideen artean mutur banatan aurkitzen dira eta tarteko irtenbide baten beharra zegoela ikusi zen. Horrela, Diputazioaren laguntzaz, Eguneko zentroa jarri zen martxan. Diputazioak obretako inbertsio osoa (7.600.000 pezeta inguru) ordaindu zuen eta ekipa-

mentu gastuak (3.800.000 pezeta) Udala eta Diputazioaren artean erdi bana ordaindu zituzten. Erabiltzaileek ordaindu beharreko hileroko kuota garestiena 41.163 pezetakoa da, zerbitzu guztiak (zerbitzu asistentzialak, garraioa, jatea, garbiketak eta materiala) ordaindu beharra dagoenean. Zerbitzuaren kostora iristeko gainontzeko dirua Diputazioak eta Udalak jartzen dute. Momentuz, gehienezko kopurua (hamar plaza) beteta dago. Eskaera berriren bat jasoz gero, dauden aukerak aztertuko dira: itxaron-zerrendan sartu edota eskaera berriak Aita-Mennik sortuta duen zentru psikogeriatrikora bideratu.

Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Patatus-Ganbara

Jakina PT

ZAPATUAN KANPOAN

10:00: Autoberezi-Jakina PT

Ezinleike

11:00: Ezinleike-SLO

Eri Sirimiri

12:00: MRW-Eri Sirimiri

SLO

16:00: FAC-La Juve

Pagomendi

17:00: A Ze Flaxa Etxagi-Pagomendi

Bildurbarek

18:00: Bildurbarek Opel/Lam-Ortzi

A Ze Flaxa

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Amilotx-Gazteak

Poli. Taberna

10:30: Poli. Taberna-Etengabe

Amilotx

11:30: Igandekoak-La Peña DML

Indargorri

12:30: Bar Ganbara-Matxakategi

Igandekoak

16:00: Azpeitxi-Bar Canalejas

Agiñaspi

17:00: Agiñaspi-Jauja OH Zerezos

Bar Canalejas

18:00: Amozkibar-Shaktale

Bayer

19:00: Bayer-Agirrebeña Jatetxea

Amozkibar

20:00: Manitou-Artusamak

Agirrebeña

DOMEKAN KANPOAN

09:30: Usoa-Txipiron

K. Piperrak

10:30: Komando Piperrak-Moskis

Usoa

11:30: Bar Ganbara-Aldoka Maldoka

Errotagain

12:30: Errotagain-Mongatxurak

Bar Ganbara

16:00: Guadalest-Ufala

Arloteak

17:00: Etxagi-Arloteak/Oilagorra

Guadalest

argi!

Jauja OH Zerezos taldearentzat zigorra

2 puntu kendu dio Antolaketa batzordeak Mongatxurak eta Azpeitxiren arteko partidua arbitratzera joan ez izanagatik.

jokoz kanpo



Oskar Maiztegi
AZPEITXI JATETXEA

G. Zer moduz txapelketan?

E. Azkenaldian kaskar gabiltza, azken bi partiduak galdu egin ditugu eta. Biak kanpoan jokatu ditugu eta hor gaizki moldatzen gara. Kanpoan bost partidu jokatu ditugu; 4 galdu eta bakarra berdindu dugu.

G. Zer postutan zaudete?

E. Bosgarren postuan, baina azkenaldian partiduetan beherantz goaz.

G. Nork irabaziko du txapelketa?

E. A Ze Flaxak edo Errotagainek.

G. Jokatutako partidurik gogorrena?

E. A Ze Flaxa Etxagiren aurkakoa. 2 eta 1 galdu genuen.

G. Txapelketako jokalaririk onena?

E. Aitor Anton.

G. Real UEFArako sailkatuko da?

E. Bai, Athletic baino lehenago geratuko da behintzat.

G. Mundiala zeinek irabaziko du?

E. Espainiak edo Brasilek.

G. Arbitraiekin gustora?

E. Ahal dutena egiten dute eta ezin da gehiago eskatu.


G. Zer postutan jokatzen duzu?

E. Toki guztietan. Futbitoan ez dago postu konkreturik.

G. Zure taldeko gauzarik onena?

E. Talde jokoa egiten dugula.

gora eta behera



Alex Odriozola golaren usainean

Txipiron taldeko Alex Odriozolak 6 gol sartu zituen Amilotx taldeari. Joan zen astean 4 gol sartu zituen eta bikain ari da jokalaria beterranoa. Bestalde, Gazteak taldeak txapelketan lortzen duen lehenengo garaipena lortu zuen joan zen astean.



Gol gehiegi partidu bakar baterako

Patatus taldeak 14 eta 1 galdu zuen Gazteaken kontra. Partidura 4 jokalaria joan ziren bakarrik eta etxean geratu zirenezat da beherako gezia.

emaitzak

Pagomendi-Etxagi	3-4
Arloteak/Oilagorra-Errotagain	4-6
Mongatxurak-Agiñaspi	5-4
Jauja OH Zerezos-Azpeitxi Jatetxea	4-2
Bar Canalejas-Bildurbarek Opel/Lam	6-4
Artusamak-Guadalest	2-2
Agirrebeña Jatetxea-Manitou	3-7
Shaktale-Bayer	4-1
La Juve-Amozkibar	3-2
SLO-FAC	0-2
Ufala-Ezinleike	3-3
Matxakategi-Uve Bikoitza	3-1
Moskis-Indargorri	5-2
Aldoka Maldoka-Komando Piperrak	1-6
Jakina Patxaran Team-Bar Ganbara	2-4
Eri Sirimiri-Autoberezi	0-4
Etengabe-EH Biterrak	4-7
Ganbara Ari Ari-Polideportivo Taberna	6-4
Gazteak-Patatus	14-1
Amilotx-Txipiron	1-10
La Peña DML-Usoa	1-11
Azpeitxi-Mongatxurak	1-5
Indargorri-Aldoka Maldoka	5-4

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Errotagain	31	14
2. Mongatxurak	30	14
3. A Ze Flaxa Etxagi	30	13
4. Pagomendi	25	14
5. Azpeitxi Jatetxea	20	14
6. Bar Canalejas	20	14
7. Bildurbarek Opel/Lam	18	14
8. Etxagi	18	14
9. Jauja OH Zerezos	13	14
10. Agiñaspi	10	14
11. Ortzi	9	13
12. Arloteak/Oilagorra	8	14

Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	9	3
2. FAC	7	3
3. Bayer	6	3
4. Shaktale	6	3
5. Artusamak	4	3
6. Ufala	4	3
7. SLO	3	3
8. Amozkibar	3	3
9. Agirrebeña Jatetxea	3	3
10. La Juve	3	3
11. Ezinleike	2	3
12. Guadalest	1	3

Hirugarren maila

	P	J
1. Moskis	9	3
2. Bar Ganbara	6	3
3. Jakina Patxaran Team	6	3
4. Autoberezi	6	2
5. Eri Sirimiri	3	3
6. Uve Bikoitza	3	3
7. Indargorri	3	3
8. Komando Piperrak	3	3
9. Matxakategi	3	2
10. MRW	3	2
11. Aldoka Maldoka	0	3

Laugarren maila

	P	J
1. Txipiron	9	3
2. Erdibiterrak	9	3
3. Usoa	6	2
4. Gazteak	3	3
5. Polideportivo Taberna	3	3
6. Ganbara Ari Ari	3	3
7. Amilotx	3	3
8. La Peña DML	3	3
9. Igandekoak	3	2
10. Etengabe	3	2
11. Patatus	0	3

ESKOLAKI KIROLA

IKUSI ETA IKASI

SASKIBALOIA

Falta pertsonalak:

Jokalari batek, arautegia errespetatu gabe, aurkakoaren progresioa (botea, pasea edo jaurtiketa) mozten duenean, falta pertsonalaren bitartez zigortuko da. Zigorra, aurkako taldeari jaurtiketa libreak emanez gauzatzen da eta, gainera, falta bakoitza akumulatu egiten da. Horrela, bosgarren falta egiten duen jokalaria partidua laga egin beharko du, eta bere postua, bere taldeko jokalaria batek bete beharko du.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



TXINPARTAK

Benjaminak asteburu honetan hasiko dute eskubaloia txapelketa

Joan zen astean futbol txapelketa bukatu ondoren eskubaloiarekin hasiko dira benjaminak. Partiduak Aranzadi ikastolako patioan jokatuko dira eta bi multzotan banatuta daude txapelketan parte hartuko duten 12 taldeak. Zozketaren ondoren horrela geratu dira multzoak:

A multzoa: Antzuola B, M. Lagundia B, Elgeta, Aranzadi 2, Aranzadi 3 eta San Martin arituko dira.

B multzoa: Antzuola A, Aranzadi 6, Aranzadi 5, Aranzadi 1, M Lagundia A eta Aranzadi 4.



Aranzadi 3 taldea

Aranzadi 3 benjamin taldea Iker Gonzalez, Julen Iñurrieta, Ander Retolaza, Antxon Hernandez, Nerea Madariaga, Markel Arraiago, Eneko Odriozola, Xabier Agirre, Xabier Urrutia, Gorka Artola eta argazkian falta den Ekaitz Otxoak osatzen dute. Futboleko ondo ibili direla esan digute 5 partidutatik 3 irabazi eta 2 galdu egin baituzte. Txapelketan lortu duten golearik handiena zeinen kontrakoa izan den esaterakoan ez dira ados jarri, baina golégile onena Iker Gonzalez izan dela esaterakoan bai. Kirolik gustokoenak futbola eta pilota direla diote eta zailena, oraindik, jokatu ez duten arren, tenisa dela esan digute.



San Martin taldea

San Martin benjamin taldea Andoni Garcia, Aritz Iñarra, Ander Garcia, Jairo Remesal, Igor Molano, Ainara Dalama, Asier Carballo, Igor Moracho, Maite Unamuno, Ion Caballero, Mikel Amoros eta Kristina Blancok osatzen dute. Futboleko partidu bakarra berdindu eta beste guztiak galdu egin dituzten arren pozik daudela esan digute. Taldeko golegile onena Andoni Garcia izan da eta kirol bat aukeratzekotan futbola aukeratu dute. Saskibaloia eta eskubaloia jokatzeke zailagoak izan arren asko gustatzen zaie. Pilota, berriz, ez dute gustoko eta kirola egitea telebista ikustea baino gehiago gustatzen zaiela aitortu digute.

SAILKAPENAK

FUTBOLA

Benjaminak A multzoa

1. Mariaren Lagundia A	10
2. Aranzadi 3	8
3. Aranzadi 5	6
4. Antzuola B	6
5. San Martin	1
6. Aranzadi 4	1

Benjaminak B multzoa

1. Aranzadi 6	10
2. Antzuola A	8
3. Aranzadi 1	6
4. Mariaren Lagundia B	4
5. Aranzadi 2	2
6. Elgeta	0

Alebinak A multzoa

1. Mariaren Lagundia A	6
2. San Martin	5
3. Aranzadi 11	5
4. Aranzadi 7	4
5. Aranzadi 9	0

Alebinak B multzoa

1. Antzuola	8
2. Aranzadi 10	6
3. Aranzadi 12	4
4. Mariaren Lagundia B	2
5. Aranzadi 8	0

Alebinak neskek

1. Aranzadi B	6
2. Aranzadi 14	4
3. Antzuola	2
4. San Martin	0

SASKIBALOIA

Benjaminak, A multzoa

1. Antzuola B	10
2. Aranzadi 6	9
3. San Martin	8
4. Aranzadi 4	7
5. Aranzadi 2	6
6. Mariaren Lagundia B	5

Benjaminak, B multzoa

1. Antzuola A	10
2. Mariaren Lagundia A	9
3. Aranzadi 5	8
4. Aranzadi 3	7
5. Aranzadi 1	6
6. Elgeta	5

Futbola



BKEko talde nagusiak Urolari 0 eta 1 irabazi zion Errastik sartutako gol bati esker. Partidu gogorra izan zen eta azkenengo minutuetan asko sufritu zuten Nietoren mutilek. BKEkoek lidergoan jarraitzen dute eta bigarrenari 5 puntuko aldea ateratzen diote. Asteburu honetan Tolosaldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Gainera hemendik aurrera BKEko talde nagusiaren partiduetan gol gehien sartzen duen jokalaria bi txuleta jasoko ditu Mugertzako harategiaren eskutik.

BKEko gainontzeko taldeek emaitza ezin hobekak lortu zituzten joan zen jardunaldian. Ohorezko infantilek izan ezik (bana berdindu zuten Irunen), talde denek lortu zuten garaipena.

Eskubaloia



Lehen Maila territorialeko taldeak gol bakar bategatik galdu zuen Hernaniren aurkako partidua. Oso partidu gogorra izan zen eta azkenengo momentuan BKEkoek penalti bat huts egin eta ondorengo kontraerasoan garaipenaren gola sartu zuten hernaniarrek. Asteburu honetan Lijozen mutilek Urnietaren kontra jokatuko dute. Aurkakoak BKEkoen atzetik daude sailkapenean eta mailari eusteko derrigorrezkoa da irabaztea.

Jubenilek, berriz, berdinu egin zuten irabazi beharreko partiduan eta kadete neskek galdu egin zuten. Ondorioz, sailkapeneko 2. postua galdu egin dute. Albiste ona kadete mutilek eman dute gol bakar bategatik irabazi egin baitzuten.

Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak errepasso ederra eman zion Zornotza taldeari. Conderen mutilek 20 puntuko aldeaz irabazi zieten bigarren postuan sailkatuta dauden bizkaitarrei. Emaitza horrekin onenen multzoan sartzeko aukera handiak dituzte. Oraindik bi partidu gertatzen zaizkie eta bakarria irabazita igoera fasea jokatzeko sailkatuko dira.

Asteburu honetan Bilboko Colegio Mikeldiren aurka jokatuko dute eta hurrengo astean Goierri hartuko dute etxean.

Jubenilek oso garaipen garrantzitsua lortu zuten bi punturengatik Donostiako Askatuak taldeari irabazi baitzieten. Bergarren teknikak donostiarren altuera menperatu zuten.

GERMAN HERNANDEZ / kotxe gidaria "Lehenengo urtea izateko pozik nago"

German Hernandezek Euskadiko kotxeen rally txapelketan parte hartu du. San Juaneko autokrossean 3. postuan geratu zen eta datorren denboraldian apirilean hasiko den Euskadiko rally txapelketan parte hartzeko asmoa du.

G. Zer moduz joan da denboraldia?

E. Txapelketak 5 lasterketa ditu eta 4tan parte hartu dut, lasterketa guztiak egiteko ez baitaukat aurrekonturik. Azpeitia, Gasteiz eta Gernikako lasterketak bukatu nituen eta Iruñekoa, berriz, ezin izan nuen bukatu.

G. Zelakoa izaten da rally bat?

E. Hemengoak nahiko motzak izaten dira. Gasteizkoa da luze-

ena eta 4 tramo zituen. Motzenak 5 km eta luzeenak 15 km zituen.

G. Pozik zaude lehenengo urtearekin?

E. Oso pozik nago, aurreko postuetan bukatu baitut. Kotxea, Opel Corsa GSI, ez da oso azkarrak eta horrek asko mugatzen du. Laguntza handia eman didate Carrocerias San Martin, Zabaleta Errotuloak eta Bergara Autoak-ek eta Laskarrekoa lasterketetan asistentzia egiten aritu da. Iñigo Almortzaren laguntza ere oso garrantzitsua izan da kopiloto lanetan aritu baita.

G. Datorren urterako zer helburu duzu?

E. Kotxeari zaldi gehiago ateratzeko

ko asmoa daukat, azkarrago ibiltzeko. Halere, kotxe horrekin ezin naiz irabaztera irten Cosworth edo BMW M3 kotxeen aurrean ezin baitut ezer egin. Gainera, oraingoz asmoa ahalik eta gehien ikastea da.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Tolosalde

Lehen mailako erregionala. Domeka. 16:15.

Agorrosin futbol zelaia.

Bergara-Elgoibar

Infantilak.

Zapatua. 16:30.

Ipintza futbol zelaia.

Bergara-Ilintxa

Bigarren mailako kadeteak.

Domeka. 10:30.

Ipintza futbol zelaia.

ESKUBALOIA

Bergara Iraundi-Urnieta

Zapatua. 18:00.

Senior mutilak.

Labegaraieta kiroldegia.

Bergara-Urnieta

Zapatua. 16:30.

Kadete neskak.

Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

Bergara-Almen

Zapatua. 17:30.

Jubenil neskak.

Mariaren Lagundia.

WATERPOLOA

Bergara-Hernani

Zapatua. 20:00.

Oñatiko Zubikoa kiroldegia.

PILOTA

Euskal Liga

Junior binaka, Aranzeta/Gutierrez, El Cortijoren aurka.

Senior binaka, Muruamendiaraz/Ildiakez, San Mamesen aurka. Domeka. 11:00.

Profesionalak

Etzaniz eta Elkorro, Titin III eta Bernaren aurka.

Alustiza eta Santi, Ariznabarreta eta Zezeagaren aurka. Zearra, Rairen aurka banaka. Domeka. 17:00.

Gaur, eguakitza, 97ko kirol sariak banatuko dira Kultur Etxean

Aitor Zabaleta, Lokatza taldea eta Andoni Larrañaga sarituak

Aitor Zabaletak irabazi du aurten BERRIGARAKO irakurleek aukeratzen duten Bergarako goi mailako kirolari onenaren saria. Bestalde, herriko kirol elkarteetako ordezkariak ematen duten sari berezia Andoni Larrañagak jaso du eta, azkenik, Bergarako komunikabideetako berriemaileek aukeratutako herriko kirol elkarte onenaren saria Lokatza taldearentzat izan da.

Aitor Zabaleta auto pilotuak BERRIGARAKO irakurleen 82 botu jaso ditu; Agustín Aranzabal bigarren postuan geratu da 71 boturekin, Amaia Samaniegok 59 jaso ditu, Jon Lazkanok 44, Jokin Etxanizek 28, Jose Mari Zezeagak 22 eta Asier Garitanok 16. Bergarako klubek aukeratutako jokalaria onenaren zerrenda orriaren behealdean ikusi dezakezue.




Artxiboko argazkian, kirol talde onenaren saria jasoko duen Lokatza taldea. Behean, Andoni Larrañaga.

Andoni Larrañagari sari berezia ematerako orduan Pol-Pol Mendizale Taldean presidente moduan egindako lana hartu du kontuan epaimahaiak. Era berean, Larrañaga gaur egun Gipuzkoako Mendi Federazioko presidentea dela ere kontutan izan dute. Lokatzari dagokionez, Igoitz Gabilondok eta Peru Sagarnak Eus-

kadi mailan lortutako garai-penak eta gainontzeko txirrindulariek 1997an zehar egindako lan ona aitortu nahi izan dute herriko berriemaileek.

Bestalde, herriko kirol taldeetan dabilzan 14 kirolarik ere jasoko dute saria. Kirol talde bakoitzak iaz nabarmendu ziren kirolariak aukeratu dituzte.

Azkenik, BERRIGARAKO irakurleek bidalitako txartelen artean egindako zozketan, Udal Kirol Zerbitzuaren urte osorako karneta Eugenio Garairi tokatu zaio eta Maria Teresa Errastik irabazi du bi pertsonarentzako afaria. Sari banaketa ekitaldia gaur, eguakitza, arratsaldeko 19:30etan egingo da Kultur Etxeko erakusgelan. B



GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 76 27 70

BERGARA

AZPEITXI

Aranerrek 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisua salgai Aranerrekan. 76 42 65 (gauze).

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Pisua salgai Donostian, Amaran. 45 85 09.

Pisua salgai Aranerrekan. 76 50 50.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokatuko nuke. 76 04 57.

Erosi

Pisua erosiko nuke Bergaran. 76 57 74.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Mastrekan. Deitu 78 36 65

telefonora(20:00-22:00).

Garajea salgai Mastrekan. 76 24 57.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. 76 27 61.

Garajea salgai Marto-

kon. 76 35 50.

Garajea salgai San Lorentzon. 76 45 60/51 45.

Garajea salgai Ibargairain. Milioi bat. 76 21 61.

Garajea salgai Espo-

loian. 76 18 28.

Garajea salgai San Antonion. 76 15 37.

Errentan emateko

Garaje bikoitza alokai-

ruan Torrekuan. Deitu 763032 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargairai 37an. 763376.

Garajea alokairuan Ibargairai kalean. Deitu 76 16 38 telefonora.

Iragarki sailkatuak

Iragarki sailkatuen sailean oso erreza da zurea jartzea.

Deitu 76 03 97 telefonora edo zatoz Berrigarara. Partikularren iragarkiak doan jarriko ditugu. Inmobiliaria edo auto kontzesionarioenak, ostera, 1.100 PTA ordaindu behar da modulo bakoitza. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Eguazten eguerdia baino lehen jasotako iragarkiak argitaratuko ditugu.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. INMOBILIARIAK

5. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

7. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. AUTO KONTZESIONARIOAK

9. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

10. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

11. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 76 50 00.

Garajea alokatuko nuke. 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alokairuan Mastrekan. 150m². 76 1189.

Lokala salgai A. Fleming kalean. 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai Martokuan. 76 25 67.

Erosi

Zona industrialean 70 m² inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

Errentan emateko

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m². 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik ala gelaka). 76 58 91.

Uberan 144 m²ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

EDEL TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



LAGUN ARO
ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Telefonoa: 76 21 21
ANGIOZAR

San Lorentzoko industrialdean 200 m2ko lokala alokairuan. 76 35 09.

Dietetika-loradenda traspasatzen da Berri-zen. Lorazaintzan aditutako jendea nahiago. 94 682 42 28 (komertzio orduetan)

Errentan hartzeko

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke Osintxun. 76 08 21.

5. LANA

Eskaintzak

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egingo litzuzke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo litzuzke. Deitu: 76 56 66.

Klinika auxiliari batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. 76 64 47.

Neska tituludunak administratibo lanak egingo litzuzke. 907 94 06 67.

Neska bat eskeintzen da orduka lan egiteko. 939 47 25 84.

Eskaerak

Abestu eta pianoa edo teklatuak jotzen dituen neska behar da. 73 05 65 (gauez).

Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. 76 51 20 (12:00etatik 13:00etara).

Eguzkitza erretegirako emakume/gizonezko bat behar da sukaldari lanetarako. 76 56 03 (11:00-16:00 edo 19:00etatik 22:00etara).

Tabernari euskalduna behar da Kortazar tabernan. 76 20 62.

6. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. Deitu 78 71 32 telefonora.

Ingeles klaseak ematen ditut. Deitu 76 53 88 telefonora (Rosa).

Mate, fisika eta kimika. 76 24 31.

Mate klaseak ematen dira. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. Deitu 76 70 40 telefonora.

Mate, fisika eta informatika klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora. OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26telefonora.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

Eskaerak

Enpresaritzat zientziatiko irakaslea behar da matematika irakasteko 76 38 28.

Ingeles klaseak jasoko nituzke bertakoa den batengandik. 76 38 71 (Larraitz).

Frantses irakaslea behar da. 76 06 87.

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Kawasaki Vulkan motorra salgai. 76 70 21.

Renault-19 Chamade TXE kotxea salgai. SS-

AF, egoera onean. 76 11 20/76 30 12.

Audi 90 kotxea salgai. 1988koa, egoera onean. 76 35 09.

Ford Fiesta XR2 lehenengo modelokoa salgai. BI-AB. 175.000 pezeta. 79 37 68.

Suzuki Hard Top 4x4 autoa salgai. Gris metalizatua. 5 martxaduna eta estriboetako babesgarriekin. 79 09 92 (13:00-16:00).

9. ANIMALIAK

Saldu

Pastor aleman txakurkumeak. Deitu 76 08 21 telefonora (Uhai).

Pastor aleman txakurkumeak (arrak) oparitzen ditut. 78 19 43/78 22 41.

10. DENETARIK

Saldu

Logela berria salgai: bi ohe, ikasketa mahaia, liburu apalak, altzari txikiak. 76 43 37.

Mendi trabesiako Nordica TR9 botak salgai,

42-43 zenbakia. 75 16 80 (Jon).

Denda baterako moduko apala, mostradore, euskarria eta makina-erregistradora prezio onean salgai. 76 25 67.

Zumarraga-Gasteiz johan-erria egiteko kotxea behar da. Hiru ikasle. 72 24 57 (Jule-ner).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. 76 30 93.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaioak. 76 51 38 (Joseba).

Pioneer musika-ekipoa salgai. 907 40 28 27.

Vitus bizikleta egoera onean salgai. 76 08 21 (20:00-22:00).

Altzariak prezio onean salgai. Aukera ederra. 76 30 93.

Ileapaindegiko tresneria salgai. 200.000 pezeta. 79 67 12.

Ordenagailua salgai. 970 41 74 08.

Fagor markako 10 litroko ur-berogailua salgai. Tximinia dauka. la berria, oso egoera onean.

79 65 31. Egur koloreko seihaska berria prezio onean salgai. 79 56 53 (Isabel).

Karabanendako neguko abantzea salgai. Inca Alpes 250 modeloa. Bi urte. 79 66 09.

Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. 79 65 31. Tere.

Erosi

Ibertrenetako materiala erosiko nuke. 76 03 72.

Bigarren eskuko faxa erosiko genuke. Deitu 76 58 37 telefonora.

Diska-singleak erosten ditut. Deitu 52 67 77 telefonora.

Punk eta hard-core musika erosten dut (LP eta singleak). 76 38-25.

Galdu

Balore sentimental haundiko erloju bat galdu zait. 76 39 33, Nuria.

Gabonetan eraztun bat galdu nuen. 76 31 03.

Zilar-koloreko emakume-erloju bat galdu dut Alkabieta-Seminario tartean. Deitu 76 17 18

BIZIKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK

Larranaga

San Pedro, 9. Telefono, 761051.

R.S.I. 209374-55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

JAKIÖN

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak

JAKION S.L.

San Migel plaza 4 etxeba.

20530 Leintz Gatzaga • Gipuzkoa

Tf.: (943) 71 46 86

Faxa: (943) 71 46 21

BERGARAN honako denda hauetan salgai

- Aldi Irala Irizar 3
- Laskurain Artekalea 4
- Arantxa Azoka

ANTZUOLAN honako denda hauetan salgai

- Juan Jose Agirre Harategia Kalebarren 1
- Mujika Harategia Kalebarren 1

MARTXE ARANA

olio eta guache erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 76 57 71

Orkesta Sinfonikoa Musika Eskolatik kanpo

Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduko du Bergarako Orkesta Sinfonikoa

Orain arte Musika Eskolako Orkesta Sinfonikoa zena Udal Orkesta Sinfonikoa izango da aurrerantzean; beraz, ez du loturarik izango Musika Eskolarekin. Bergarako Udalak eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek, orkestako zuzendariak, hartutako erabakiak kezka sortu du Musika Eskolako zuzendaritzan eta irakasleen artean.

Eneko Azkarate

Musika Eskolako Orkesta Sinfonikoa orain dela 12 urte sortu zen eskolako musikariak hezitzeko asmoz. Orduetik orkesta hazi egin da eta musiko asko, euren ikasketak amaitu ahala, eskola lagatzen joan dira pixkanaka-pixkanaka. Gaur egun, orkesta 60 bat lagunek osatzen badute, erdia inguru Musika Eskolatik kanpo dago.

Bestalde, urteak pasa ahala, eta musikoak instrumentuak menderatzen joan diren heinean, orkestaren kalitateak ere gora egin du. Halere, Musika Eskolako zuzendaritza arduratuta zegoen azkenaldian orkestaren sorrerako helburuak, eskolako musikariak hezitzea batez ere, guztiz betetzen ez zirelako: musikari berri askok orkestara sartzeko aukerarik ez zuten, oso zaila baita kalitateari eustea esperientziarik gabeko musikoak sartzen badira.

Egoera honen aurrean, orkestako zuzendariaren eta eskolako irakasle eta buruen arteko ezadostasunak areagotu egin dira azkenaldian eta, ondorioz, Alfredo Gonzalez Chirlaquek, orkestako zuzendariak, eskola lagatzea erabaki du. Horrela jakinarazi zion joan zen

abenduko azken egunetan Eli Mendiatz, Musika Eskolako zuzendariari, eta urte hasieratik ez dauka inolako loturarik Musika Eskolarekin.

Udal Orkesta


Bergarako Udalak begi onez ikusten du herrian kalitatezko Orkesta Sinfoniko bat egotea. Aitortu behar da Musika Eskolako Orkesta Sinfonikoak eta baita eskolaren inguruan antolatu diren ekitaldiek (Miserableak, San Martinen estampa, El Rey Leon, e.a.) ere oihartzun handia izan dutela eta Orkesta

Sinfonikoak izena eman diola Bergarako herriari. Horregatik, Udal Orkesta Sinfonikoa sortzearen aldeko apostua egin du Udalak eta horren ardura Alfredo Gonzalez Chirlaqueri eman dio. Orkestako zuzendariak asmoen berri eman zien musikariei Gabonen atarian eta hauek begi onez ikusi dute proiektua. Bergarako Orkesta Sinfonikoak sortuko dituen gastuak, hau da, zuzendariaren soldata, instrumentuak, jantziak e.a., Udalak ordainduko ditu eta zuzendaritza batzorde bat eratuko da.

Ertzaintzak Arrizuriaga parkea lagatzen duenean eta Beheko Estazioan ko-



Artxiboko argazkian, Musika Eskolako Orkesta Sinfonikoa. Aldameneko orrian, Alfredo Gonzalez Chirlaque eta



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrek 32 behea. BERGARA. Telefona: 76 10 65. Faxe: 76 11 40.

IGARO


- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkala 35 Tf.: 76 17 27

misaldegi berria jartzen denean, Untzeta Jauregia Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren egoitza bihurtzea da Udalaren asmoa. Baina ordua arte, datorren urteko apirillean edo, Musika Eskolan entsaiatzen jarraituko dute bi taldeek.

Eta Musika Eskolarekin zer?

Egoera honen aurrean, Musika Eskolako Zuzendaritza batzordea eta eskolako irakasle eta zuzendariak oso arduratuta azaldu dira. Alde batetik, orkestra barik geratu dira eta, bestalde, Udalak dirulaguntzak murriztuko ote dizkien beldur dira. Alkateak BERRIGARRI esan dionez, "Musika Eskola oso garrantzitsua da herriarentzat eta laguntzen jarraituko du Udalak, ez daukagu laguntzak murrizteko asmorik". Bestalde, prozesu guztia isilean eta Zuzenda-



ritz batzordean ezer komentatu barik egin izanagatik haserre eta minduta azaldu dira Musika Eskolako buruak. Zuzendaritza batzordean, eskolako zuzendaria, ikasketa burua eta irakasleen, gurasoen eta Udalaren ordezkariak daude. Azken egunotan, alde batetik, orkestako gurasoen ordezkariekin eta, bestetik, eskolako zuzendari eta ikasketa buruarekin hainbat bilera izan ditu Udalak.

Etorkizunerako asmoak

Musika Eskolako buruen asmoa orkestra berri bat sortzea da eta horrela jakinarazi diete orain arte bertako musikari izan direnei. Zuzendari berria kontratatu eta bertako ikasleekin orkestra berria sortuko dute. "Herri batek orkestra sinfonikoa edukitzea oso normala den ez dakit, baina argi dago musika eskola edo kontserbatorio batek bere orkestra izan behar duela, eskolaren helburu pedagogikoak bete nahi badira beharrezkoa baita. Akordeoi Orkestra edota Gazteen Banda daukagun mo-

duan hari-instrumentuak jotzen dituztenentzat beharrezkoa da orkestra" esan digu Eli Mendiartzek, Musika Eskolako zuzendariak. Gaur egun, 400dik gora lagun dago Musika Eskolan ikasten eta 22 irakasle dabilta lanean.

Orain arazoa entsaiotarako lekua topatzea izango da. Egoitza berrira joan arte, Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Musika Eskolan entsaiatuko dute eta zaila izango da eskolako orkestarentzat tokia topatzea. Bestalde, zer gertatuko da instrumentuekin? eta jantziekin? Erantzun asko dago airean.

Aro berri baten aurrean aurkitzen da Musika Eskola. Laister, presidente berria aukeratuko da, aurrekoak sei hilabete baino ez baitzituen egin. Andoni Etxeberriak, presidente berria izango denak, orain hurrengoan BERRIGARAN esan bezala, eskola barruko funtzionamenduari arreta berezia eskainiko zaio aurrerantz.

Bestalde, Bergaran Euskal Herriko hirugarren orkestra sinfonikoa izango dugu: Euskadikoa, Bilbokoa eta Bergarakoa. B



Musika Eskolako zuzendaria.



Musika Eskolan beste orkestra bat sortuko dute, eskolako helburu pedagogikoentzat beharrezkoa delako

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxes: 76 04 77

Tapizeriak

Moketak

Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

Eta orain

gazteendako,
umeendako eta ume
jaioberriendako
altzariak

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Maisuari dagokion trebetasun. 2. Santutegi batera erromerian doana. Lehenengoa. 3. Naukate. Tona. Kontsionante errepikatua. 4. Hareazko meta. Garai. 5. Idi, hitz elkarketan. Nire. Bokala. 6. Zelatan ibiltzen dena. 7. Areagotzeko partikula. Azkenekoa. Itxura. 8. Polit. Barazki mota. 9. Bizkaiko herria. Röntgen. Uharteak. 10. Erail. Ortze.

Goitik behera

1. Mendigoizaleak. 2. Araudiak. 3. Gipuzkozko hiria. Infin., lortu. Bokala. 4. Apaizen jantzia. Argi, hitz elkarketan. 5. Haur. Bi egun barru. Uranioa. 6. Infusio mota. Garra. Naizen hau. 7. Asto arra. Arazo hitzaren kontsonanteak. 8. Euskal atzizki femeninoa. Ikur. 9. Bokala. Holmioa. Iparraldean, esna. 10. Gura. Zorro haundi.

Soluzioa

10. Nahia. Zaku.
9. U. Ho. Atzar.
7. Astarra. Rz. 8. Sa. Seinale.
5. Ume. Ezti. U. 6. Te. Sua. Ni.
3. Inun. Lor. A. 4. Sotana. Art.
1. Mendizalea. 2. Arautegiak.
Gortik behera
Ea. R. Irak. 10. Akatu. Zeru.
Ago. Z. Antz. 8. Irain. Aza. 9.
5. It. Neure. A. 6. Zelataria. 7.
3. Nautz. T. Hn. 4. Duna. Sasoi.
1. Maisutasun. 2. Erromesa. A.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Bergarako zein plazatan dago Auzitegia?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Infernukua** tabernan izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Jon Lazkanoren**tzat izan da: Lasa jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Joni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Iriaun**. Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**.

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigarara? Ea galdera hauek zuzen erantzuteko gauza zaren!

1. "Altare nausixa moduan apaindutta" nori esaten zaio?
A- Pertsona baldarrari
B- Pertsona dotoreari
C- Ezkontze arazo dagoenari
2. Etorkizunean Udal Orkestra Sinfonikoaren egoitza zein izango da?
A- Kultur Etxea
B- Irizar Jauregia
C- Untzeta Jauregia
3. Kirol sarietan, zein talde saritu dute?
A- Bergara K.E.ko futbol saila
B- Badminton taldea
C- Lokatza

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela eguazten eguerdirako Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

INFERNUKUA

TABERNA

Masterreka 23 ☎ 76 18 49

Garraiolari lanak bete ondoren, orain dela zazpi urtetik urbanoa gidatzen du Jose Inazio Sasiainek Aurelio Ot-ekin batera. Jose Ignaciok 40 urte ditu, ez-konduta dago eta alaba bat dauka.

Jose Inazio Sasiain



Urbanoarekin multarik jarri dizute sekula?

Ez.

Eta kotxearekin?

Ezta. Motorrarekin bai...

Zein da herri barruko gehienezko abiadura?

50 km./orduko.

Errespetatzen da?

Gehienek ez dute errespetatzen, ez.

Zenbatgarrenean atera zenuen gidatze karneta?

Kotxearena bigarrenean, besteak lehendabizikoan.

Zenbat kostatzen da urbanoan joatea?

70 pezeta oraingoz...

Jende gehien noiz ibiltzen da?

Lanera joateko eta irtetzeko orduetan.

Gehienez zenbat jende sartzen da?

60 bat lagun.

Astero zenbat km. egiten duzu urbanoarekin?

Ehundik gora.

Zein garraio mota gustatzen zaizu gehien?

Helikopteroa beharbada. Karneta ateratzeko asmoa neukan lehen.

Autobusean egindako azken bidaia?

Iaz, Madrilera.

Herri barruan ibiltzeko, kotxez ala oinez?

Kotxez edo motorrez.

Zein motor daukazu?

Suzuki bat.

Gustoko piloto bat?

Alex Criville, adibidez.

Lanerako, goiza ala arratsaldea?

Goizez hobeto.

Umore onekoa ala txarrekoa zara?

Onekoa. Uste dut, eh?

Zenbat ordu egiten duzu lo?

Gutxi, 5-6 bat.

Zer gosaltzen duzu?

Baso bat ur, esnea eta ondoren bokadilo bat hamarretakoan.

Lan orduetatik kanpo zer egiten duzu?

Lagunekin txikiteoan ibiltzen naiz.

Sagardotegiren batean izan zara aurretan?

Ez, igual hiru urte joateke...

Zodiakoan, zein zeinutakoa zara?

Geminis.

Horoskopoa irakurtzen duzu?

Tokatzen denean bai.

Ikusitakoa azken filmea?

The game, domekan ikusi nuen.

Etxaniz eta Elkoro finalean bai?

Baietz uste dut...

Animalia bat?

Txakurra.

Beldurra, zeri?

Hanka sartzeari. B

MARGA JANTZIDENDA
ERREFORMAK DIRELA ETA,
OTSAILEAN LIKIDAZIO OSOA!!!

Aukera ezin hobea!
Zatoz dena agortu aurretik!

MARGA JANTZIDENDA, SAN PEDRO 20 TF/F. 76 05 37



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 76 19 94

LOS CAZADORES
TABERNA

Zubieta 26
☎ 76 48 08

Goizeko 7etatik zabalik

gosariak **plater konbinatuak** pintxoak **pizzak**

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23



Herriko eskolan, 1964

Gaur egun Epaitegia dagoen tokian, garai batean Herriko eskola zegoen. Bertan ikasi zuten gaur egun 30 urtetik gora duten herriko mutil askok. Argazkia 1964-65 ikasturtean ateratakoa da eta bertan gaur egun 40 bat urte dituztenak agertzen dira. Hona hemen euren izenak, ezkerretik eskumara:

Goiko ilaran: Mitxel Belategi, Jimi Gimeñez, Lucio Sanchez, Iñaki Elkoro, Egaña, Pedro Etxeberria, Luis Chicote, Vicente Unamuno, Agarre, Jesus Elkoro, Jesus Madinabeitia, Santi Iñarra, Zelaia, Mario Fernandez eta Jabier Bilbao.

Bigarren ilaran: Lucio De La Presa (irakaslea), Ander Gallastegi, Emilio Imaz, Juan Luis Martinez, Manolo Llorente, Ignacio Arruti, Co-

ranti, Jesus Fernandez, Miguel Azpeitia, Amadea Rodriguez, Ignacio Urzelai, Delgado, Javier Ugarte, Imanol Barrenetxea eta Aristegi.

Hirugarren ilaran: Jose Luis Ruiz De Egiño, Miguel Angel Inclan, Iñaki Umerez, Angel Amigo, Alfredo Gonzalez, Elias Mugika, Miguel Angel Arriaran, Virumbrales, Bilbao, Fernando Igarza, Pablo Gallastegi, Diaz de Gereñu eta Martinez.

Lehenengo ilaran, makurtuta: Jesus Mari Arizabaleta, Juan Mari Larrañaga, Xabier Agirre, Jose Luis Gorosabel, ezezaguna, Manolo Ena, Jesus Aldazabal, Juan Mari Olabarria, Karmelo Olabarria eta Jabier Bolibar.

Argazkia: Vicente unamuno.

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 76 56 62



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria **U** Industriaren
hornikuntzak **UNIFE** alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABALETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

Mugertza harategia



Bergaran, betiko
produktu ezagunak:
tostoiak, relleñoak eta...

Mugertzako odolosteak

*Zerutik
bidaliak!*

Pedro eta Olvi jabe berriak,
zuen zerbitzura.

Mugertza 12, Bergara. Tf. 76 13 82.

IRTEERAK: SAGAROTEGIETARA, ERRIOXARA, ESKIATZERA, KOSTALDERA
MIKROBUSAK • TAXI ZERBITZUA • KAMIOI ZERBITZUA • GARAJEA



Aitziturri 5, San Lorenzo. BERGARA. Tf. 76 12 36.

TXURRUKA AUTOAK



Otatza

Otatza baserria, Zerain

Telefonoa: 80 17 57.

Apirilera arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

170 lagunentzako lekua,
eserita nahiz zutik.

txotxetik edan sagardotegi onenetan



Elutxeta

Elutxeta baserria, Urnieta

Telefonoa: 55 69 81.

Apirilera arte zabalik.

Erretegia urte osoan.

Bertako janaria.

200 lagunentzako lekua,
eserita nahiz zutik.



Otsuenea

Osinaga auzoa, Hernani

Telefonoa: 55 68 94.

Urtarriletik apirilera zabalik.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

150 lagunentzako lekua,
eserita nahiz zutik.



Rezola

Ipintza baserria, Astigarraga

Telefonoa: 55 66 37.

Apirilera arte zabalik.

Bertako janaria.

100 lagunentzako lekua, eserita.